

---

PRENTSA OHARRA

## **MANU BLAZQUEZ ARTISTAK ZURIZ BETE DU BILBAOARTE 'ABUNDANTE AMIGABLE COMPUESTO' ERAKUSKETAREKIN**

Bilboko Udalaren arte produkzio zentroak ekoizpen propioko erakusketa honetako atea zabalik izango ditu martxoaren 9tik apirilaren 6ra

*(Bilbon, 2018ko martxoaren 9an).* BilbaoArtek *Abundante Amigable Compuesto* izenburupean urteko bigarren bakarkako erakusketa irekiko du gaur bere erakusketa aretoan, 2017an egoile izandako Manu Blazquezen eskutik. Artista valentziarraren lana soiltasunean eta elementu piktoriko ezberdinen isolatzean oinarritzen da. Lerro erdigune kontzeptual hartuta paper gainean egin ohi du lan, erakusketa honetan lerro doiak eta grafitoa izango dira nagusi, milimetrikoki antolatuta fondo zuriaren gainean. Gaur, martxoak 9an arratsaldeko 19:30etan, hasiera emango zaio erakusketari, eta zabalik egongo da apirilaren 6a arte.

Lerroak kontakizunean duen presentzia aldeztuz, hura nabarmentzeko asmoa du Blazquezek, bai fondoan, bai forman. Paraleloki kokatzerakoan, lerroak hitzik gabeko kontakizun grafiko bihurtzen dira, papera alde batetik bestera zeharkatuz. Horrela, matematikari baten zehaztasunarekin eta artisau baten pazientziarekin, itxuraz apalak diren irudi serieak sortzen ditu, milimetrikoki marraztutako lerro paraleloen bitartez.

'*Abundante Amigable Compuesto*' izenburuak, artistak erakustaldi honetarako prestatu dituen marrazki serieei egiten die erreferentzia. *Abundante* bere lanen diseinuan sistema matematiko bat aplikatzeko dituen aukera kopurua ugaria delako. *Amigable* lantzen duen formatuaren neurriek zatitzaile kopuru berdina eskaintzen diotelako, ondorioz 14 marrazki serie bereizgarri sortuz. Azkenik, *Compuesto* lerroak konbinatuta agertzen direlako, batean bertikalean, bestean horizontalean.

Blazquezek duen diseinuaren ikuspena publizitatean eta diseinu grafikoan du jatorria, bertan hasten baita bere karrera. Serie programatuetan lan egiteko interesa grabatuan espezializazioa egitetik datorkio batez ere, Italian ikasle egon zenean. Baina Valentzia eta Bilbo artean da, azkenean, zenbaki-kodeen posibilitate plastikoak zabal garatzen dituela.

Erakusketa ikusgai egongo da astelehenetik ostiralera, 17:30etik 20:30era. 2018ko otsailaren 2tik martxoaren 2a arte. Sarrera doan.

## **ARTISTARI BURUZ**

Manu Blazquez (Valentzia, 1978) institutu garaian marrazketa teknikoa eta graffitiaren inguruko interes bizi bat lantzen du, gero Jaume I unibertsitatean egindako ikasketetan garatzen duena.

Publizitatezko lehen zikloa bukatu ondoren eta denbora batez diseinatzaile grafiko jardun ondoren Italiara aldatzen da, Bolognako Arte Ederren Akademian Arte Grafika ikasketak hasiz. Bertan Comunicazione e riproducibilità tesiarekin diplomatzen da eta bi urtez Cataldo Serafini irakaslearen laguntzaile aritzen da. 2011. urte amaieran Greziako Tesalonikako Aristoteles Unibertsitateko Xenis Sachinis grabatu irakaslearekin batera etapa berri bat hasi zuen.

Gaur egun Valentzian bizi da, zenbaki-kodeak eta hauen aukera plastikoen inguruko ikerketan lanean. Manuren lanaren funtsezko maisu eta inspiratzaileak Morandi, Calderara, Lewitt, André, Judd, Martin A., Sempere, Asins eta Darvoben dira.

### **Informazio gehiago / Más información**



#### **Fundación BilbaoArte Fundazioa**

Prensa y Comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto | 607 606 458 | [prentsa@bilbaoarte.eus](mailto:prentsa@bilbaoarte.eus)

---

NOTA DE PRENSA

## **EL ARTISTA MANU BLAZQUEZ LLENA BILBAOARTE DE BLANCO EN LA EXPOSICIÓN 'ABUNDANTE AMIGABLE COMPUESTO'**

El centro de producción artística del Ayuntamiento de Bilbao tendrá abiertas las puertas de esta muestra de producción propia entre el 9 de marzo y el 6 de abril

*(Bilbao, 9 de marzo de 2018).* BilbaoArte inaugura bajo el título '*Abundante Amigable Compuesto*' la segunda exposición individual del año, de la mano de Manu Blázquez. El artista becado por la Fundación en 2017 fundamenta su trabajo en la sencillez y aislamiento de los diferentes elementos pictóricos, realizando sus diseños especialmente sobre papel. Con la línea como concepto central de esta muestra de arte, líneas precisas y grafito milimétricamente dispuesto sobre fondos blancos serán centrales. La muestra, que se inaugura hoy 9 de marzo a las 19:30, estará abierta hasta el 6 de abril.

El artista valenciano se propone dar protagonismo a la línea defendiendo su presencia en el relato, tanto en fondo como forma. Al disponerlas en paralelo las líneas se convierten en un relato gráfico sin palabras, recorriendo el papel de lado a lado. Así, dibuja trazos paralelos milimétricamente medidos, con la precisión de un matemático y la paciencia de un artesano, para generar series de dibujos en apariencia sencillos.

El título '*Abundante Amigable Compuesto*' hace referencia a las series de dibujos que el artista realiza para la presente muestra. Es *Abundante* por la cantidad de opciones posibles al aplicar un sistema matemático durante el diseño de sus piezas. *Amigable* hace referencia a la coincidencia en número de divisores que le ofrece el formato en el que trabaja, dando como resultado 14 series diferenciadas de dibujo. El calificativo *Compuesto* señala la combinación de líneas, unas veces verticales y otras horizontales.

La forma en la que Blázquez contempla el diseño tiene su origen en la publicidad y el diseño gráfico, campos en los que comienza su carrera. Su interés por el trabajo programado de tipo serial se instaura sobre todo debido a su especialización en grabado durante sus estudios en Italia. Pero es entre Valencia y Bilbao donde, finalmente, desarrolla más ampliamente las posibilidades plásticas de los códigos numéricos.

La exposición permanecerá abierta de lunes a viernes de 17:30 a 20:30 horas entre el 9 de marzo y el 6 de abril de 2018, con entrada gratuita.

## **SOBRE EL ARTISTA**

Manu Blázquez (Valencia, 1978) madura durante el instituto un fuerte interés por el dibujo técnico y el grafiti, que desarrolla en los estudios universitarios de la Jaume Primer de Castellón.

Tras el primer ciclo en publicidad y un período de experiencia como diseñador gráfico, se traslada a Italia donde comienza el estudio de la Gráfica Artística en la Academia de Bellas Artes de Bolonia, donde se diploma con una tesis titulada *Comunicazione e riproducibilità* y trabaja dos años como asistente del profesor Cataldo Serafini. A finales del 2011 inicia una nueva etapa en Grecia junto al profesor de Grabado Xenis Sachinis de la Universidad Aristóteles de Tesalónica.

Actualmente reside en Valencia donde profundiza su investigación en torno a los códigos numéricos y sus posibilidades plásticas. Principales maestros e inspiradores del trabajo de Blázquez son Morandi, Calderara, Lewitt, André, Judd, Martin A., Sempere, Asins y Darvoben.

### **Informazio gehiago / Más información**



#### **Fundación BilbaoArte Fundazioa**

Prensa y Comunicación / Prentsa eta komunikazioa

Alicia Prieto | 607 606 458 | [prentsa@bilbaoarte.eus](mailto:prentsa@bilbaoarte.eus)